



DATUAK EZAGUTZEKO JARDUERA:

Datuak erraztuz

Datuak interpretatu eta adieraztea oso garrantzitsua da, eta bi prozesuak elkarrekin oso lotuak daude. Izan ere, zenbat eta hobeto eta argiago adierazi datuak, harik eta errazago interpretatuko dituzte gainerakoek datu horiek.

Jarduera honetan, ikasleek datu ezberdinak bildu eta adierazi beharko dituzte, baina horretarako piktograma bidezko datu adierazpenak erabiliz.

Hori lortzeko, ikasleek gelan galdeketa bat egin beharko dute ikasle bakoitzaren “fruta gustukoenaren” inguruan. Ondoren, datu horiek piktograma-diagrama bat erabiliz adierazi beharko dituzte, non irudi bakoitza ikasle bati dagokion. Hau da, hiru ikasleren fruta gustukoena sagarra bada, hiru sagar marratzu beharko dituzte errenkadan.

Jarduera hau, objektu eta datu ezberdinekin burutu daiteke:

- Fruta
- Kolorea
- Kirola

GELAKO MATERIALAK

Jarduera hau egiteko eranskinetan aurkituko dituzu beharrezko materialak.

KONTUAN IZAN

- **HELBURUA**

Ikasleek datuak modu ulergarriagoan adierazteko teknika ezberdin bat lantzea.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

Jarduera txostena betetzea izango da euren zeregina, datuak ahalik eta modu egokienean adieraziz.